

ZINEA LANTZEKO ORIENTAZIO OROKORRAK.

MUSIKAREKIN LOTUTA.

- *Banda sonora entzun.
- *Pertsonaia protagonista agertzen den bakoitzean erabiltzen den musika identifikatu (horrela gertatzen bada eta bestela estilo berdinekoak diren edo loturaren bat duten).
- *Animo egoerak, jarrera, suspentse.... Musika zehatz batekin lotzen diren hauteman.

PELIKULAREN EGITURA AZTERTU.

- *Ideia nagusiaz hausnartu.
- *Pelikulako gaia isladatzen duen mapa kontzeptual bat burutu. Batzuetan bi istorio paralelo ager daitezke, ea harremantzerik badagoen.
- *Pelikularekin transmititu daitekeen ideia nagusia hautatu taldeko debate baten ondoren.
- *Pelikulak pertsonalki eragin dizu? Zerbait irakatsi dizu? Zure biziarekin harremanik badu bertan kontatutakoak? Pertsonaia batekin identifikatuak sentitu zara? Guzti hauetan beraien erantzuna arrazoitu eta azal dezatela.

PERTSONAIA NAGUSIAK AZTERTU.

- *Pertsonaia nagusiak deskribatu eta istorioan izan duten papera.

PERTSONAIAK HARREMANEN ARABERA AZTERTU.

- *Pertsonaia bakoitzaren jarrera aztertu. Guk ezagutzen dugun (inguruko norbait, historiako pertsonairen bat, telebista bidez ezgaitzen ditugunak...) norbaiten antza dauka? Norbaitekin lotuko genuke?

BALIOAK AZTERTU.

- *Pelikularekin zerikusia duen berriren bat agertu da azken aldian? Egunkariko zatiak ekar ditzakete eta denekin mural bat egin. Edo berriren bat asmatu beraiek gaiarekin lotuta, bakoitzak bere hausnarketa egin dezala eta ondoren besteen aurrean irakurri....

KONTZPTUAK AZTERTU.

*Pelikulako elkarrizketak landu, adibidez antzerki moduko bat eginez pelikulako berdina eta ondoren beraiek nola egingo luketen benetan paper horretan egongo balira (elkarrizketa alda dezatela egoerari buelta emateko).